

.EUS DOMEINUAK DOAN ESKURATZEKO BALDINTZAK

UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, UNED-Bergara eta PUNTUEUS Fundazioaren artean zabaldutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan .EUS domeinuen esleipena baldintza berezietan emango da jarraian zehazten diren erabilera-baldintzak onartuz:

Unibertsitateko ikasleak

.EUS domeinuak doan erregistratzeko aukera izango dute jarraian agertzen diren baldintzak onartuz:

1. Domeinu-izenaren titularra Unibertsitateko hauetako bateko ikasle matrikulatua izan behar da domeinua erregistratzen edo berritzen duen unean.
2. Erregistratutako domeinu-izenak ikasleak dituen proiektu edo egitasmoetarako erabili dezake, haien ikasketa proiektu, blog pertsonal edo aisialdirako abiatzen dituzten webguneetan .EUS domeinua erabili dezaten.
3. Ikasle bakoitzak gehienez 3 domeinu-izen izango ditu erregistratuta aldi berean hitzarmen honen baldintzak baliatuz.
4. Hitzarmen honen baitan erregistratutako domeinu-izenak erregistroaren datatik hasita 90 eguneko epean aktibatuko dira, eta ez dira beste webgune batzuetara bideratu behar.
5. Webgunean argitaratutako eduki guztiak edo zati esanguratsu bat euskaraz egongo da.
6. Ezingo da eskatzailearena ez den tokiko elkarte, enpresa, erakunde edo marken izenik erregistratu.
7. Domeinu-izenaren jabetza edo/eta erabilera ezin zaio transferitu edo saldu hirugarren alderdi bati.

Unibertsitateko ikasle-ohiak eta langileak

.EUS domeinuak %25eko beherapenarekin erregistratzeko aukera izango dute jarraian agertzen diren baldintzak onartuz:

1. Eskatzaile bakoitzak gehienez 3 domeinu-izen izango ditu erregistratuta aldi berean hitzarmen honen baldintzak baliatuz.
2. Hitzarmen honen baitan erregistratutako domeinu-izenak erregistroaren datatik hasita 90 eguneko epean aktibatuko dira, eta ez dira beste webgune batzuetara bideratu behar.
3. Webgunean argitaratutako eduki guztiak edo zati esanguratsu bat euskaraz egongo da.
4. Ezingo da eskatzailearena ez den tokiko elkarte, enpresa, erakunde edo marken izenik erregistratu.
5. Domeinu-izenaren jabetza edo/eta erabilera ezin zaio transferitu edo saldu hirugarren alderdi bati.

Eskaintza honetan parte-hartzeak baldintza hauen onarpena dakar. Haez gain, .EUS domeinuen erregistroak ".eus erregistro-politika" onartzea dakar. .EUS Domeinuaren erregistro-politikak hemen ikus daitezke: <https://puntu.eus/domeinuaren-araudia/>